

|                     |                      |
|---------------------|----------------------|
| PRESTAKUNTZA ARLOA: | Atzerriko hizkuntzak |
| MODALITATEA:        | Lineakoa             |
| HIZKUNTZA:          | Ingelesa             |

# UPPER-ADVANCED

KODEA 2018-23-2-17/18/19/20

## INFORMAZIO OROKORRA

**IRAUPENA** 120 ordu **IKASTARORAKO SARBIDEA** <http://ivap.myoxfordenglish.com>

**HARTZAILEAK** Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetako enplegatu publikoak

**EDUKIAK** Ikastaroak egokitasun zenbatesia du edukietan hizkuntzen Europako Erreferentzia-Esparru Bateratuan ezarritako mailekin. Esparru horren, hain zuzen ere, hizkuntzen irakaskuntzaren curriculumeko gaitasun mailarekin (C1).

**TRAILERRA** Hemen duzu ikastaroaren aurkezpen bideoa [gaztelaniaz](#) eta [ingelesez](#)

**BALDINTZAK**  
-Helbide elektroniko bakarra ikasle bakoitzeko (EAEko Admin. Orokorra eta haren EEEAak):  
-korporazio-saretik kanpodo posta-zerbitzarietatik eta zerbitzarietara mezuak bidaltzeko eta jasotzeko aukera ematen duen posta elektronikoko kontua izatea. Ez dute balioko mezuak korporazio-sarearen barruan bidali eta jasotzeko aukera besterik ematen ez dutenak.  
-Lanpostuak ezarrita duen euskara hizkuntza eskakizun maila egiaztatuta izatea.

**BALDINTZA TEKNIKOAK**

- Windows 8 edo 10 eta 2 GB memoria RAM
- Interneterako konexioa 5 Mbps/1 Mbps (download/upload)
- Adobe Flash Player 22.0.0.1 (<http://get.adobe.com/es/flashplayer/>)
- Soinu txartela
- Entzungailuak mikrofonoarekin edo mikrofonoa eta bozgorailu independenteak
- Nabigatzaileak: Internet Explorer 11, Microsoft Edge 13, Mozilla Firefox 49, Chrome 53, Safari 9 edo berriagoak
- Mac OS 10.10 edo berriagoa

**TUTORETZA**  
Ikastaroan tutoreek hurrengo lanak egingo dituzte:  
➢ Mezu bat bidaliko dio ikasleari ikastaroari ongi etorria emateko plataformaren bitartez.  
➢ Kontsultak jaso eta argitu:  
• Ikastaroaren EDUKIArekin zerikusia dutenak, posta elektronikoaren bidez  
• erantzuna 24 orduetan emango dute  
➢ Ikaskuntzaren jarraipena eta ebaluaketa egin

| HILEA   | HASIERA       | AMAIERA       | ADMINISTRAZIO OROKORRA |                        | BESTE ADMINISTRAZIOAK | BAJAK<br>(ez da matrikula kobratuko) |
|---------|---------------|---------------|------------------------|------------------------|-----------------------|--------------------------------------|
|         |               |               | ESKATZEKO AZKEN EGUNA  | OE                     | ESKATZEKO AZKEN EGUNA |                                      |
| OTSAILA | Otsailaren 1a | Ekainaren 22a | Urtarrilaren 15a       | Urtarrilaren 16tik 19a | Urtarrilaren 19a      | Urtarrilaren 31 arte                 |
| MARTXOA | Martxoaren 1a | Ekainaren 15a | Otsailaren 5a          | Otsailaren 6tik 9a     | Otsailaren 9a         | Otsailaren 28a arte                  |
| UZTAILA | Uztailaren 2a | Azaroaren 23a | Ekainaren 1a           | Ekainaren 4tik 8a      | Ekainaren 8a          | Ekainaren 29a arte                   |
| IRAILA  | Irailaren 3a  | Azaroaren 30a | Ekainaren 29a          | Uztailaren 2tik 6a     | Uztailaren 6a         | Abuztuaren 31 arte                   |

<http://ivap.myoxfordenglish.com/placement/>

**MAILAKETA PROBA\***  
Proba egiteko epeak:  
-otsaileko deialdia: urtarrilaren 2tik 19a  
-martxoko deialdia: urtarrilaren 22tik otsailaren 9a  
-uztaileko deialdia: maiatzaren 21etik ekainaren 8a  
-iraileko deialdia: ekainaren 18tik uztailaren 6a

\*Behin proba hasita, amaitu baino lehen ixten badugu saioa, berriz ere egin beharko dugu hasiera-hasieratik, dagokigun maila jakin nahi badugu.

2018ko ZEHARKAKO PRESTAKUNTZA-PLANA

|                     |                      |
|---------------------|----------------------|
| PRESTAKUNTZA ARLOA: | Atzerriko hizkuntzak |
| MODALITATEA:        | Lineakoa             |
| HIZKUNTZA:          | Ingelesa             |

## UPPER-ADVANCED

### ZER LORTU NAHI DA

#### HELBURU NAGUSIAK

Ideiak natural eta jarioz adierazi, ahalegin nabarmenik gabe, hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabili gizarte-bizitzan, lan-arloan edo arlo akademikoan, eta testu luze eta konplexu ugari ulertu eta esanahi inplizituaz jabetu.

#### BERARIAZKO HELBURUAK

- Natural eta jarioz hitz egin, esapideen bila nabarmen luzatu gabe. Hizkuntzaren erabilera desberdintzeko gai izan.
- Gai konplexuei buruzko testu konplexu, zehatz eta ongi egituratuak osatu. Zenbait lokailu erabiltzeai, koherentzia eta kohesioa erakutsi hala idatzizko diskurtsoan nola ahozkoan.

#### GAITASUNAK

Prestakuntza ekintza amaitzean ikaslea gai izango da:

Grammar: Aditz-denbora guztiak berrikusi; geroaldiari buruz espekulatu. Enfasia gehitu: *fronting* teknika, perpaus zatikatuak eta adberbioak. Erreferentziak egin izenordainak erabilia.

Pasiboa era inpersonalean erabili, diskurtso-lokailuak, alderantzikatze edo inbertsioaren bitartez nabarmendu eta partizipio-perpausak erabili, garrantziko beste egitura batzuek gain.

Vocabulary: Entrenamendua eta ikasketa, enpleguaren eta enplegatzailaren igurikimen edo espektatibei buruz hitz egin, bat-bateko aurkezpenak eman, puntu zailak zabaldu eta akordioetara iritsi negoziatioetan.

Kulturarteko esperientziak deskribatu, lan-praktikei buruz hitz egin, ulertzen dela erakutsi, bakoitzaren helburuak aurrera atera, bileretako elkarrizketetan moldatu eta telekonferentzietan parte hartu.

Listening: Bere espezialitateaz haragoko gai konplexuei buruzko eztabaidak ulertu, nahiz eta litekeena den xehetasunen bat egiaztatu behar izatea; batez ere, hiztunaren azentuekin ohituta ez badago. Ulertzeko gaitasuna, baita diskurtso oso argi egituratua ez dagoenean eta esanahi inplizituen bat duenean ere.

Reading: Testu luze eta konplexuak, literarioak, ulertu, eta estilo-aldaketei erreparatu. Testu espezializatuak eta argibide teknikoak ulertu, nahiz eta ez izan norberaren espezialitateari dagozkionak.

Speaking: Natural eta jarioz hitz egin, hizkuntza malgutasunez eta testuinguruaren arabera erabilia (akademikoa, gizartean, eta abar). Ideia konplexu eta egituratuak aurkezteko gaitasuna.

Writing: Testu ongi antolatuak idatzi —saiakerak, txostenak, gutunak, eta abar—, ideiak zuzen adierazita, dagokion irakurlearentzako moduko estilo egokiarekin.

### PROGRAMA ETA EBALUAZIOA

#### METODOLOGÍA

Unitate didaktikoen modulu bakoitzaren edukiak garatzen dituzte eta zatitan banatuta daude. Unitateen ibilbideak malgutasun handia du, eta aukera ematen dio ikasleari edozein alorretara itzultzeko, edukiak lantzen jarraitu edo ariketa jakin bat nahi beste aldiz errepikatzeko.

Unitate bakoitzaren hasieran, *Annabel* irakasle birtualak **INTRODUCTION** bat egingo du eta jardueren helburuak azalduko ditu. Zenbait azalpen ere emango du —gramatika, hitzak, ahoskatzea—, eta jarraibideak eskaini, zer egin behar den eta noiz. Bi hizkuntzatan hitz egingo dio ikasleari (gaztelaniaz eta ingelesez), eta biak tartekatuko ditu bere azalpenetan. Gero eta gutxiago hitz egingo du gaztelaniaz, mailek zailtasunean gora egin ahala.

**BIDEO**ak aurkeztuko dizkigu unitateko hitzak eta gramatika. Egitura guztiak aurkezten dira eta hitzak irakasten. Ikaslea pertsonaiekin batera hazten da, pertsonaia horiek arin eta natural sartzan dituztelako argumentuan gero landuko diren egiturak, hitzak eta ahoskera. Bideoa ingelesezko azpigituluekin ikus daiteke, edo erreferentziako hizkuntzako azpigituluekin, bai eta azpigitulurik gabe ere.

Bideoa ikusi, eta gramatikako ariketei ekingo die ikasleak. **GRAMMAR** atalak era askotako ariketak ditu unitateen atal guztietan: unitate bakoitzeko gramatika-puntuak praktikatzeko da kontua.

Aurreko atala osatzeko, **VOCABULARY** izenekoa dugu. Helburu nagusizat du unitatean jorrotutako eremu semantiko jakin bateko hitz espezifikoko ikastea.

Gero, elkarrizketa simulatuaren atala dator. **CONVERSATION** horretan, ikasleari aukera ematen zaio ikasitakoa erabil dezan: elkarrizketa simulatu bat egingo du bideoen protagonistekin, gidoi bati jarraituta (iradokizunekin eta argibideekin).

Unitate bakoitzaren amaieran, autoebaluazio-proba, **SELF CHECK**. Horren bitartez, ikasleak

|                     |                      |
|---------------------|----------------------|
| PRESTAKUNTZA ARLOA: | Atzerriko hizkuntzak |
| MODALITATEA:        | Lineakoa             |
| HIZKUNTZA:          | Ingelesa             |

## UPPER-ADVANCED

berehala egiazta dezake zer ikasi duen, eta, horrenbestez, ikasteko autonomia gara dezake. Hartara, landutako alor bakoitzari buruzko ezagutzak probatzen dira.

### PROGRAMA

1. unitatea. Errepasoa: aditz denborak. Kulturarteko esperientziak deskribatu.
2. unitatea. Jarrerak adierazi iraganean. Karrera profesionalak konparatu.
3. unitatea. *Reading: Kultura-akatsak saihestu. Writing: Aurkezpen-gutuna.*
4. unitatea. *Reading: Estereotipo britainiarrek. Vocabulary: Esamolde idiomatikoak*
5. unitatea. Etorkizuneko aldaketei buruz espekulatu. Lan-metodoei buruz hitz egin.
6. unitatea. Erreferentziak egin izenordainekin. Arrisku-motei buruz hitz egin.
7. unitatea. *Reading: Lan-elkarrizketak internetetik. Writing: CV bat idatzi.*
8. unitatea. *Reading: Hizkuntza pentsamenduaren janzkera da. Vocabulary: Amerikako ingelesaren eta Britainia Handiko ingelesaren arteko diferentziak.*
9. unitatea. Enfasia *cleft sentences, fronting* eta adberbioekin. Harremanak taldean esploratu.
10. unitatea. Adberbioak erabili jarrerak kalifikatzeko. Arrakastarako faktoreei buruz hitz egin.
11. unitatea. *Reading: Arrakasta lortzeko aholkuak. Writing: Proposamen bat idatzi.*
12. unitatea. *Reading: Zeelanda Berriko ingelesa mehatxupean. Vocabulary: Zeelanda Berriko ingelesa.*
13. unitatea. *Participle clauses* (geroaldia lehenaldian). Prestakuntzaz eta ikasketaz hitz egin.
14. unitatea. Galderak egin. Enplegatzaileen/enplegatuen igurikimen edo espektatibez hitz egin.
15. unitatea. *Reading: Kultura eta globalizazioa. Writing: Akordio-gutuna.*
16. unitatea. *Reading: 1984. Vocabulary: Ingeles orwelliarra.*
17. unitatea. Baldintzazkoak. Errekurtsoez hitz egin.
18. unitatea. Pasiboa erabili despertsionalizatzeko. Lidergo-estiloaz hitz egin.
19. unitatea. *Reading: 29 urte adin perkektua al da? Writing: Txostena.*
20. unitatea. *Reading: Zergatik hitz egiten dute horrela Irlandakoek? Vocabulary: Irlandako lagunarteko ingelesa.*
21. unitatea. Inbertsioa erabili enfasirako, nabarmentzeko. Balioei buruz hitz egin.
22. unitatea. Lokailu diskurtsiboak. Influentziaz eta pertsuazioaz hitz egin.
23. unitatea. *Reading: Benidorm- "ekoturismo"aren aurpegi berria? Writing: Mailing bat.*
24. unitatea. *Reading: Australiako jargoaren geroaldia eta erorialdia. Vocabulary: Australiako lagunarteko ingelesa.*

Aparteko edukiak\*: baliabide osagarri bat da, praktikatzeko, entretentzeko, eta ikasitakoa finkatzeko.

- **Business Videos:** 9 unitate hauetan, negozioen arloko ingelesean giltzarri diren hiztegia eta esaldiak jasotzen dira.
- **Working Culture:** lanari buruzko ikuspegi desberdineko prentsa-artikuluak, soinu-grabazioarekin batera.
- **Work Emails:** 60 unitate hauekin, mezu elektronikoen eraginkor eta profesionalak idazten ikasiko duzu.
- **Phrasal Verbs:** Negozio arloko ingelesean gehien erabiltzen diren 25ak.
- **Articles:** egunkarietako eta aldizkarietako 30 artikulua baino gehiago, eta grabazio bat ere bai.
- **eBooks:** liburu elektronikoen hautatuak, genero askotakoak eta zure mailara egokituak.
- **Campus:** hiztegia eta gramatika errepasatzeko maila guztietako ariketak.

### \* Otsaila eta uztaileko deialdietan soilik

### EBALUAZIOA

**Ebaluaketaren helburua:** Ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea. Etengabeko ebaluazioa egingo da eta ikasgai bakoitzeko aurrerapenak *My Progress* atalean ikusiko du ikasleak modu grafikoa.

Unitate bakoitzaren amaieran, autoebaluazio-proba, **Self Check** izango da. Test horrek bost orrialde ditu, eta unitatearen gramatika- eta lexiko-edukiak jorratzen duten ariketak. Ikasleak galdera guztiak bete behar ditu emaitza ikusteko 6. orrialdean. Bost puntu edo gehiago lortuz gero gainditzen da proba. Behin proba hasita, amaitu baino lehen ixten badugu saioa, ez dira emaitzak gordeko.

Gainera, hiru unitatez behin, **Progress test** bat dago ikastaro bakoitzeko. Ebaluazioa gutxienez 5 puntu (%50) edo gehiago lortuz gainditzen da. Progress test bakoitzak 12 orrialde ditu eta hizkuntza-gaitasun guztiak hartzen ditu aintzat: *Reading, Writing, Listening, Use of English (Grammar and Vocabulary), Speaking* eta *Conversation*. Ahozko eta idatzizko probak ikasleak 2 eguneko epean jasoko ditu irakaslearen zuzenketa —iruzkin eta guzti—(bakarrik bigarrenak eta hirugarrenak zuzenduko dituzte). Sistemak erantzun guztiak

|                     |                      |
|---------------------|----------------------|
| PRESTAKUNTZA ARLOA: | Atzerriko hizkuntzak |
| MODALITATEA:        | Lineakoa             |
| HIZKUNTZA:          | Ingelesa             |

## UPPER-ADVANCED

gordeko dizkizu **Progress testa** zuzentzeko bidali arte, horrela, ez duzu zertan ariketa guztiak momentu berean egin.

### IKASTAROAREN BALORAZIOA

Posta elektronikoaren bidez, inkestaren lotura jasoko duzu, bete dezazun.

**Aprobetxamendu-egiaztagiria** lortzeko bete beharreko baldintzak:

- Autoebaluazio-probak gainditzea, gutxienez, 19 test
- **Progress testak** gainditzea: 2 zenbakidun Progress test biak eta 3 zenbakidun beste biak

### ZIURTAGIRIA

**Ziurtagiri digitala** eskuragarri izango duzu posta elektronikoan jakinarazpena jasotakoan. Sartu "IVAPekiko izapideak", "Ziurtatzeak" atalean.

### PREZIOA

110€

**Ikastaroari buruzko** kontsultarik izanez gero, tutoreengana jo dezakezu:

- [tutores.ivap@myoxfordenglish.com](mailto:tutores.ivap@myoxfordenglish.com)

### LAGUNTZA

**Laguntza teknikoa** behar izanez gero, euskarri teknikorako sailera jo dezakezu:

- [soporte.ivap@myoxfordenglish.com](mailto:soporte.ivap@myoxfordenglish.com)
- Tel.: 916602670 / 916602927

**Aministrazio-gaiekin** lotutako kontsultak egiteko: [prestakuntza@ivap.eus](mailto:prestakuntza@ivap.eus)

### OHARRA

Erreklamazioetarako: ikastaroa bukatzen denetik hurrengo 10 eguneko epean.